

2017-2018 PRESTAKUNTZA PLANA

PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA

Izenburua:

“Montessorirengan oinarrituriko bizitza praktikoa: ikasgelarako lagungarri” (3. taldea)

Modalitatea: Ikastaroa

Etapak: Haur Hezkuntza-ko 2.zikloa

Norentzat: Haur eta Lehen Hezkuntza orokorreko maisu-maistrak, laguntzako maisu-maistrak eta pedagogia terapeutikoko maisu-maistrak eta Lanbide Heziketako Haur Hezkuntzaren goi mailako graduako irakasleak

Deitzailea: Prestakuntza Atala. Prestakuntza Programen Bulegoa

Justifikazioa:

Maria Montessoriren iritziz, eguneroko bizitzako jarduerak funtsezkoak dira haurren garapenerako. Bere proposamenean hainbat jardura daude haurren mugimen trebetasunak eta autonomia garatzea xede dutenak, mugimenduen kontrol eta koordinazioan laguntzeaz gain, kontzentrazioa erdiesteko eta ordenatuak izateko lagungarri direnak. Halaber, jardura horiek bizikidetzarako lagungarri dira, bai ikasgelan eta baita gizartean ere.

Ikastaroan zehar espresuki aztertuko eta biziko dira egunero egiten ditugun jardura horien zer-nolakoak, sekuentzien bidez, ikasleen mailara egokitzeko. Horrela, bultzatuko da giro bat sortzea, egokiagoa izanen dena haien premia materialetarako zein aztura eta araukin loturik dauden premietarako.

Helburua/k:

- Aztertzea eguneroko bizitzako jarduerak (ikasgela barrukoak, etxeakoak edo beste gizarte gune batekoak) haurren mailara egokitzeko eta, jasotako emaitzetatik abiatuta, tresnak garatzea ikasgelara eramateko.

Edukiak:

- Aurkezpena eta eguneroko bizitzako gakoak, María Montessoriren ikuspegiaren arabera.
- Ondoko alorretako materialen aurkezpena:
 - Ikasgelaren zainketa.

- Norberaren higieena.
- Harreman sozial egokiak.
- Mugimenduen kontrola, eguneroko zeregin bat egitean.

Metodologia: Azalpen aktibo eta parte-hartzaileak. Zalantzak argitzea, ikasgelako bereko errealitatetik abiatuta. Baterako hausnarketak, saio bakoitza ixteko. hausnarketak.

Hizlaria(k): Mónica Montealegre

Arduraduna:

Ana Turumbay Izurdiaga,
Prestakuntza Programen Bulegoa
848 423250
sf.programas@educacion.navarra.es

Tokia: Uharteko eskola zaharra, San Joan plaza, 5 (Uharte)

Datak: Abenduak 13, 15 eta 16

Ordutegia:

Asteazkena 13: arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara
Ostirala 15: arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara
Larunbata 16: goizeko 10:00etatik 14:00etara

Iraupena: 10 ordu

Lagun kopurua: 18

Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua: 14

Izena emateko epea:

Izena emateko azken eguna **abenduaren 10a** izanen da; esteka honetan egin behar da:

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/inscripciones-3/>

Hautaketa irizpideak:

- 1.- Haur Hezkuntzako ikastaroak zuzendutako espezialitate batekoa izatea.
- 2.- Izena emateko ordena.

Hizkuntza: Gaztelania

Oharrak:

- Aurrerantzean prestakuntza jarduerekin zerikusia duten ohar zein mezu guztiak Hezkuntzako Sare Publikoko irakasleek duten PNTE kontu ofizialera bidaliko dira (erabiltzailea@educacion.navarra.es). Ikastetxe pribatu eta itunduetako irakasleei abisu eta jakinarazpenak Educan ezarria duten helbide elektronikora iritsiko zaizkie.
- Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda, honako web-orri honetan: <http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/onartuen-zerrenda/>
- Irakasle bat jarduera egiteko onartu, baina ezin baldin badu egin, mezu elektronikoz jakinarazi beharko dio deialdian ageri den arduradunari, hasi baino lehen baja emateko. Bestela zehapen-prozesua abiaraziko da, eta irakaslea ezin izanen da 5 hilabetez sartu izena emateko plataforman; ondorioz, galduko du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan izena emateko aukera. Zehapen horrek ez du inor salbuetsiko ikasturtean prestakuntzako 35 ordu egiteko beharkizuna betetzetik.
- PNTEren urrutiko prestakuntzako ikastaroei dagokienez, ikastaroa hasten den egunetik 15 eguneko epean irakasleak ez badu "Nahitaezko lana: aurkezpena" izenekoa egin eta entregatzen, automatikoki baztertuko da ikastarotik. Baztertuz gero, gorago aipatutako zehapen-prozesu bera aplikatuko zaio.
- Prestakuntza jarduneko irakasleek soilik egin dezakete eta haiei baino ez zaie ziurtatuko; salbuespena amatasun-lizentzia duten irakasleak dira, abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretuan ezarri bezala." Aldi baterako ezintasun-egoeran egonez gero, ezinezkoa da prestakuntzara joatea.
- Ziurtagiria eskuratzeko bertaratu beharreko saioen %85era joan beharko da, eta saio bakoitzaren sinaduren orrian bolaluma ezabaezinarekin sinatu. Ez da kontuan hartuko sinatu ez den saiorik; hau da, ez da onartuko bestelako bertaratze-ziurtagiririk. Prestakuntzaren diseinuan lan praktikoa egitea sartuta badago, bertaratzeaz gain, nahitaezkoa izanen da lanak aurkeztea ziurtagiria lortzeko.